

Asteazkena, 2011ko ekainak 29 - 11:47
**Harian**
bilatu...
Bilatu

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)

Paperekoa
PDFn
Iragarki laburrak
Hitza

Harian | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Harian](#)

Euskararen eta samieran aplika daitezkeen prozesu informatikoak ikertzen aritu da Linda Wiechetek hizkuntzalaria azken hilabeteotan, EHUko IXA taldearekin elkarlanean.

## Hizkuntza txikiak elkarlanean

SAMARA VELTE.  
Donostia

Samierak aldaera asko eta hiztun gutxi ditu: Herri Eskandinaviarretako iparraldean bizi diren 20.000 lagun inguruk menperatzen dute bederatzi sami hizkuntzetako bat. Samierak fino-ugriera du arbaso, eta finlandiera, estoniera eta hungariera dira bere anai-arreba ezagunenak.

Linda Wiechetek hizkuntzalariek (Herdecke an der Ruhr, Alemania, 1980) duela zazpi urte izan zuen samierarekin lehen harremana, Tromsøko (Norvegia) unibertsitatean ikasteko aukera eman ziotenean. Hizkuntzak berehala liluratu zuen: «Samieraren gramatika asko gustatzen zait, nola adieraz daitezkeen hainbeste informazio hitzen osuera aldatuz, eta zein zehazki adieraz daitezkeen».

Euskara itxura batean hizkuntza umezurtza bada ere, baditu zenbait antzekotasun samierarekin: biak hizkuntza indoeuroparrak ez izateaz gain, objektua aditzaren aurretik hobesten dute gehienetan -*Nik liburua erosi dut* esaldian, adibidez-. Gainera, biak kasu anitzeko hizkuntzak direnez, gerta liteke hitz berak kasu desberdinetarako balio izatea, hau da, esaldiaren barnean funtzio desberdina hartzea.

Aditza da Wiecheteki gehien interesatzen zaion elementua. Euskarak bezala, samierak oinarritzko aditz forma batzuk ditu, eta haietatik abiatuta, beste hainbat forma sor daitezke, amaiera aldatuta. «Samieraz hitz bakarraren bidez desberdin dezakezu: *Nik salto egiten dut, Nik behin salto egiten dut, Nik askotan salto egiten dut denbora luzeago batean eta Nik norbaiti salto eginarazten diot*. Zure hizkuntzan halakorik ez duzunean, liluragarria da». Hizkuntzalarien artean, askotan aipatzen omen dira halako hizkuntza bitxiak. Euskara ere haietako bat da: «Edozein hizkuntzalarik du euskararen berri, lengoia bera ez menperatu arren. Gai garrantzitsua da hizkuntzalarion artean».

Hizkuntzak zuzenean eragiten du hiztunarengan. Wiecheteken iritziz, hizkuntza bakoitzaren gramatikak hiztunen pentsatzeko egiturak bereizten ditu: «Hitz bat era batera edo bestera moldatzen dugunean, esaten dugunari buruzko kontzientzia hartzen dugu». Hori bereziki nabarmena ei da morfologia konplexua duten hizkuntzetako hiztunen artean: «Euskaldunei euren gramatikaz galdetzen diedanean beti iruditzen zait ondo azaltzeko gai direla. Kontzienteagoak dira euren gramatikak ematen duen informazioari buruz».

Kulturari buruz galdetuta, ordea, ez dago ziur: «Zalantzarik gabe uste dut kultura eta hizkuntza hertsiki lotuta doazela, baina ez dakit hizkuntzak baldintzatzen duen kultura, ala kulturaren ondorioz adierazten dugun hizkuntza era batera edo bestera».

### Hizkuntza eta teknologia

Samieran aplikatzeko moduko hizkuntzalaritza teknologia garatzen dihardu Wiechetekek Norvegian. Horretarako, Tromsøko Unibertsitateko Gialleteko taldearekin eta Sami Legebiltzarreko Divvun taldearekin aritzen da elkarlanean. Besteak beste, analisi programak eta itzultzaile automatikoak sortzean datza haien lana; izan ere, hitzen osuera konplexua duten hizkuntzentzat ez dute balio beste hizkuntzetarako asmatutako sistemek.

«Googlek, adibidez, estatistikaren bidez itzultzen du: testu luze bat hartzen du hizkuntza batean, eta beste hizkuntza batera itzultitako testu berarekin konparatzen du; hortik ateratzen ditu itzulpenak. Horrek ingeleserako eta gaztelaniarako balio du, hitz gehienek forma eta, ondorioz, esanahi bakarra dutelako; gainerako informazioak beste hitz batzuk gehituz -determinante eta preposizioak, esaterako- eransten zaizkie hizkuntza horiei. Baina samieran eta euskararen, hitzek formaren arabera hartzen dute esanahia. Hori dela eta, testu zabal batean hitz jakin baten bila arituz gero, hura topatzea askoz zailagoa izango da; hain zuzen ere, hainbeste forma desberdin daudelako. Samieraren kasuan, gainera, oraindik eta zailagoa da, oso testu gutxi baitaude Interneten».

Bestalde, kasu desberdinek sor dezaketen anbiguitasuna saihestu behar da: «Ordenagailuari azaldu behar zaio *katuak* hitza agertzen denean zein kasutan dagoen, *nor* pluralean edo *nork*

#### Albisterik...

IRAKURRIENAK
Bozkatuenak
Bidalienak

- 1 [Talibanek hemezortzi lagun hil dituzte Kabulen, hotel bat erasoz hartu ostean](#)
- 2 [Suak Bardeetan 47 hektarea erre ditu](#)
- 3 [Gerizpean hobeto](#)
- 4 [Bi hilabete osasuna hobetzeko](#)
- 5 [Gomazko piloten azken punpa](#)

singularrean». Kasu horietan, baliagarria izan daiteke aditzari buruzko informazioa ematea: «Aditz bakoitzak irizpide batzuk eskatzen ditu. Adibidez, aditza *jan* baldin bada, badakigu subjektua eduki behar duela, eta subjektu hori ziurrenik pertsona bat edo animalia bat izango dela. Horrenbestez, ordenagailuari esan diezaiokegu kasu horretan segur aski *katuak* nork singularrean itzuli behar duela». Prozesu horretan sartzen da linguistika: «Hizkuntzari buruz dakiguna ordenagailuak ulertzeko moduko arau formalen bidez adierazi behar dugu».

Itzulpen automatikoaz gain, hizkuntzen analisirako eta haiek ikasteko programak ere garatu nahi ditu. Dagoeneko sortu dute samierako gramatika lantzeko Interneteko aplikazio bat, *Oahpa* izeneko. Tromsøko unibertsitateko ikasle ugari erabili dute dagoeneko, eta erantzun positiboak jaso dituzte.

### Aurrera begira

Wiecheteken ustetan, hizkuntza txikiak ezinbestekoa dute hizkuntzalaritzan aplikatutako teknologia, irau nahi badute: «Gaur egungo gizartean ez dago ezer teknologia linguistikorik gabe. Oso garrantzitsua da hizkuntza batentzat ahal beste eremutara zabaltzea: hedabideetara, administrazioa, hezkuntzara...». Eta informatikara, noski.

Proiektu horiek guztiak aurrera atera ahal izateko Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko IXA taldearekin elkarlanean aritu da lanean azken hiru hilabeteotan. IXA ere euskararentzako prozesu informatikoak garatzen aritzen da; haren produkturik ezagunenak Xuxen zuzentzaile ortografikoa eta OpenTrad itzultzaile automatikoa dira, besteak beste.

Wiecheteken eta IXAren elkarlanaren helburua «elkarrengandik ikastea» izan da, bi hizkuntzek antzeko arazoak dituztelako eta irtenbideak behar dituztelako. Hala ere, hiru hilabete «motz» gelditu zaizkiola dio, eta IXA taldearekin elkarlanean jarraitzeko asmoa azaldu du: «Alde batetik, bi hizkuntzetako aditzi buruzko informazio gehiago lortu nahi dugu, gure analisi-programa hobetzeko, aurreragoko ikerketetarako oinarri izan dadin. Bestalde, orain arteko ikerketan oso interesgarriak diren bestelako hizkuntzalaritza datuekin egin dugu topo; zalantzarik gabe, horiek aztertzen jarraitu nahi dugu».



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola |  
Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak |  
Paperekoa | |

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.  
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172  
berria@berria.info - www.berria.info  
Lege Informazioa